

ERANSKINA

INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMA

Funtzionamendu Arauak eta Informazioak Kudeatzeko Prozedura

1.- Sarrera

Informazioaren Barne Sistema multzo integratu bat da, komunikazioak jasotzeko barne-kanalak eta informazioak kudeatzeko prozedurak osatzen dute, eta Informazioaren Barne Sistemako arduradunaren agintaritzapean funtzionatzen du.

Bere helburua da behar bezala bermatzea otsailaren 20ko 2/2023 Legeak —arau-hauste normatiboei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesten dituenak— 3. artikuluan aipatzen dituen pertsonak ezagutzen dituzten jokabide irregularren berri eman ahal izatea, eta jokabide horien jarraipen eraginkorra egitea, erabateko bermeak eskainiz independentziari, konfidentzialtasunari eta segurtasunari dagokienez, Informazioaren Barne Sistemara jotzen dutenek errepresaliarik jasango ez dutela bermatuta.

Informazioaren Barne Sistemaren helburua da legearen 2. artikuluan ezarritako ekintzak edo ez-egiteak hauteman eta legean araututako mekanismoen bidez jakinarazten dituzten pertsonak babestea, lan- edo lanbide-testuinguruan.

Beraz, arau-haustek edo jardunbide txarrak prebenitzeko, hautemateko eta ebazteko sistema bat da, eta bermatzen du egon daitezkeen informatzaileek eskura duten informazioa erraz eta konfidentzialtasun osoz eman ahal izatea, Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea SAK (aurrerantzean, Azkuna Zentroa) arazoa ikertu eta konpondu ahal izan dezan, ahal den guztietan.

2.- Aplikazio-eremu materiala

Irregularutasun hauek jakinarazi ahal izango dira:

a) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-haustea izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eranskinean zerrendatutako Europar Batasunaren egintzen aplikazio-eremuan sartzen badira. Zuzentaru hori Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da, edozein dela ere barne-ordenamendu juridikoak horietaz egiten duen kalifikazioa;
- Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen (EBFT) 325. artikuluan jasotakoaren arabera; edo
- Barne-merkatuan eragina badute, EBFTren 26. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusten den bezala, estatuak emandako laguntzen eta lehiaren arloan Europar Batasuneko arauak haustea barne, bai eta barne-merkatuari buruzko arau-haustek ere, sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten egintzei dagokienez, edo sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea edo helburua desitxuratzen duen abantaila fiskala lortzea helburu duten jardunbideei dagokienez.

b) Arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite.

3. - Aplikazio-eremu pertsonala

Azkuna Zentroaren Informazioaren Barne Sistemak aukera emango du otsailaren 20ko 2/2023 Legeak —arau-hauste normatiboei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesten dituenak— 1. a paragrafoan aipatzen dituen arau-hausteei buruzko informazioa jakinarazteko, artikuluan aipatzen diren pertsona guztiei.

Hala, Informazioaren Barne Sistemaren helburua da behar bezala babestea Azkuna Zentroarekin lan- edo lanbide-harremanak dituzten pertsonak, goi-kargudunak, zuzendaritzako langileak, harreman profesionala amaitu dutenak, boluntarioak, praktiketako edo prestakuntza-aldiko langileak, bekadunak (ordainsaria jaso ala ez) eta hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenak. Era berean, babesa ematea autonomoei edo Azkuna Zentroko kontratisten, azpikontratisten eta hornitzaileen gainbegiratze eta zuzendaritzapean lan egiten duen edozein pertsonari. Orobat, babesa emango zaie, besteak beste, informatzaileei laguntza ematen dieten pertsonari, errepresaliak jasan ditzaketen inguruko pertsonari eta informatzailearen jabetzako pertsona juridikoei.

4.- Informazioaren Barne Sistemaren funtsezko ezaugarriak

Ezartzen den sistemak ezaugarri hauek ditu:

- Aukera ematen du pertsona guztiak joan daitezen arau-hausteen kategoria jakin batzuen berri ematera.
- Modu seguruan diseinatu, ezarri eta kudeatzen da. Horrela, behar bezala bermatzen da informatzailearen eta komunikazioan aipatutako hirugarrenen identitatearen konfidentzialtasuna, bai eta hura kudeatzean eta izapidetzean egiten diren jardueren konfidentzialtasuna ere, eta, orobat, datuen babesa, baimenik gabeko langileen sarbidea eragotziz.
- Aukera ematen du komunikazioak idatziz edo ahoz edo bi modutara aurkezteko.
- Erakundean ezar daitezkeen informazioaren barne-kanalak integratzen dira.
- Bermatzen da aurkeztutako komunikazioak modu eraginkorrean tratatu ahal izango direla dagokion erakunde edo organismoaren barruan, erakundea edo organismoa bera izan dadin balizko irregulartasunaren berri ematen lehena.
- Independentzia eta bereizketa bermatzen da Bilboko Udalaren barneko informazio-sistemen eta beren informazio-kanala ezartzera behartuta dauden mendeko erakundeen artean.
- Informazioaren Barne Sistemaren arduradun bat izendatzen da.
- Barneko informazio- eta informatzailearen defentsa-sistemaren arloko printzipio orokorrak behar bezala jakinarazi beharko dira udal-erakundean edo mendeko erakundeetan.
- Jasotako informazioak kudeatzeko prozedura onartzen da.
- Informatzaileak babesteko bermeak ezartzen dira erakunde edo organismoaren beraren esparruan.
- Jasotako informazioen eta haiek sorrarazi dituzten barne-ikerketen erregistro-liburu bat dago, betiere 2/2023 Legean ezarritako konfidentzialtasun-betekizunak bermatuz.

5.- Informazioaren barne-kanala

Arau-hauste normatiboei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritakoaren babesean, barneko informazio-kanala sortzen da, 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako ekintzak edo ez-egiteak dituen informazioa biltzeko bide egokitzat hartuta.

1
2
3
4



Intsezketo betekizuna da kanalaren funtzionamendurako. Modu seguruan
iko da, informatzailearen, informazioan aipatutako hirugarren pertsonen
eatzeko eta izapidetzeko egiten diren jarduei



Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak kudeatuko du barne-kanalaren
funtzionamendua, eta errepresaliarik eza eta informatzailearen konfidentzialtasuna bermatuko
ditu.

6.- Informazioaren Barne Sistemaren arduraduna

Azkuna Zentroko Zerbitzu Orokorren arduraduna izendatzen da Azkuna Zentroko Informazioaren
Barne Sistemaren arduradun.

Informazioaren Barne Sistemaren arduradunari dagokio sistema osoa kudeatzeko ardura,
jarduera-esparru bakoitzean, eta arau-hausteei buruzko informazioak arduraz izapidetzeko
zeregina. Bere eginkizunak modu independentean eta autonomoan bete beharko ditu, erakunde
edo organismoaren gainerako organoekiko, ezin izango du inolako jarraibiderik jaso bere
jardunean, eta horiek gauzatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan
beharko ditu eskura.

Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak konfidentzialtasun eta segurtasuneko berme
osoak eskainiko ditu, eskura duen informazioari dagokionez.

Hauek dira Informazioaren Barne Sistemaren arduradunaren eginkizunak:

- a) Bere kabuz edo izendatutako langileen bidez, egokiak diren egiaztapen-lanak egitea.
- b) Komunikazioak kudeatzea.
- c) Gertakarien egiaztapenari amaiera emango dion gomendioa egitea.
- d) Berariaz sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa bere gain hartzea.
- e) Pertsona eta enplegatu publikoek zuzenbidearen aurkako jokabideak jakinaraz ditzaten
zaintzea, betiere konfidentzialtasunez eta fede onez jakinarazten dituenari kalterik eragin
gabe.
- f) Gertakariak egiaztatzeko prozesuan kargudunei eta gainerako enplegatu publikoei behar
bezalako babesa ematea.

- g) Urteko memoria egitea eta Gobernu Batzordeari aurkeztea. Berrogeita hamar langileen muga gainditzen ez duten menpeko erakundeek kasuan, memoria dagokion organo eskudunari helaraziko zaio.
- h) Balio etikoen, jokabide-arauen eta gobernu onaren aurkako jarduerak prebenitzeko eta prestakuntzako neurriak bultzatzea.
- i) Zuzenbidearen, arauen eta aipatutako balioen aurkako jokabideen inguruan egon daitezkeen interpretazio-zalantzak ebaztea.

7.- Informazioa jasotzea

1. Informazioa modu anonimoan eman daiteke. Bestela, informatzailearen identitatea gordeko da, eta ezin izango zaie hirugarrenei jakinarazi.
2. Informazioa idatziz, postaz edo barneko informazio-kanalera zuzendutako edozein bitarteko elektronikoren bidez eman ahal izango da, edo ahoz, telefonoz edota ahots-mezularitzako sistemaren bidez. Informatzaileak eskatuta, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, gehienez ere zazpi eguneko epean. Hitzeko komunikazioaren kasuetan, informatzaileari ohartaraziko zaio komunikazioa grabatu egingo dela, eta bere datuen tratamenduaren berri emango zaio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Informazioa aurkeztean, informatzaileak helbide, posta elektronikoa edo toki seguru bat adierazi ahal izango du jakinarazpenak jasotzeko, eta, era berean, berariaz uko egin ahal izango dio informazioaren ondorioz Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak egiten dituen jardueren berri jasotzeari.

Ahozko komunikazioaren kasuan, aurrez aurreko bileraren bidez, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistemaren bidez egindakoak barnean hartuta, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak modu hauetakoren batean dokumentatu beharko du:

- elkarriketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarri batean grabatuz, edo
- tratamenduaren ardura duten langileek egindako elkarriketaren transkripzio oso eta zehatz baten bidez.

Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideak alde batera utzi gabe, informatzaileari aukera emango zaio mezuaren transkripzioa egiaztatu, zuzendu eta onartzeko, sinaduraren bidez.

3. Informazioa aurkeztu ondoren, Informazioa Kudeatzeko Sisteman erregistratuko da, eta identifikazio-kode bat esleituko zaio. Informazioa Kudeatzeko Sistema datu-base seguru batean egongo da, sarbide mugatukoa izango da, soilik Informazioaren Barne Sistemaren arduradunarentzat; eta bertan erregistratuko dira jasotako komunikazio guztiak, honako datu hauek betez:

- Jasotze-data.
- Identifikazio-kodea.
- Egindako jarduerak.
- Hartutako neurriak.
- Itxiera-data.

4. Informazioa jaso eta gehienez bost egun balioduneko epean, jaso izanaren adierazpena egingo da, salbu eta informatzaileak berariaz uko egin badio ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, edo Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak arrazoizkotzat jotzen badu informazioa jaso izanaren agiriak arriskuan jar dezakeela informatzailearen identitatearen babesa.

8.- Onartzeko izapidea

1. Informazioa erregistratu ondoren, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak egiaztatu beharko du ea azaltzen dituen 2/2023 Legearen aplikazio-eremuaren barruan dauden gertakariak edo jokabideak.
2. Aurretiazko azterketa hori egin ondoren, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak honako hau erabakiko du, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, informazioaren erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita:

a) Jakinarazpena ez onartzea, honako kasu hauetakoren batean:

- Kontatutako gertakariak inolako egiantzik ez badute.

-
- Kontatutako gertakariak ez badira 2/2023 Legearen aplikazio-eremuaren barruko ordenamendu juridikoaren arau-haustea.
- Argi eta garbi badago komunikazioak funtsik ez duela edo, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunaren iritziz, delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak badaude. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren gertakarien eta haien inguruabarren berri igorriko zaio Fiskaltzari.
- Komunikazioak arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik ez badu, aurreko komunikazio batekin alderatuta, eta aurreko komunikazio horri dagozkion prozedurak amaitu badira, non eta ez den beste jarraipen bat justifikatzen duen egiteko edo zuzenbideko inguruabar berririk. Kasu horietan, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak arrazoituta jakinaraziko du ebazpena.

Informatzaileari ez-onartzearen berri emango zaio, hurrengo bost egun baliodunetan, salbu eta komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Barne Informazio Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari.

b) Jakinarazpena izapidetzea onartzea.

Izapideak egiteko onarpena hurrengo bost egun baliodunetan jakinaraziko zaio informatzaileari, salbu eta komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Informazioaren Barne Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari.

c) Informazioa berehala bidaltzea Fiskaltzari, zantzuen arabera gertakariak delitu izan daitezkeenean, edo Europako Fiskaltzari, gertakariak Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete.

d) Jakinarazpena bidaltzea izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintari, erakunde edo organismoari.

9.- Instrukzioa

1. Instrukzioak barne hartuko ditu kontatutako gertakarien egiazkotasuna egiaztatzeko egiten diren jarduerak guztiak.

2. Behar bezala bermatuko da informazioak eragindako pertsonak horren berri izatea, bai eta gertakarien berri izatea ere, labur azalduta. Horrez gain, aditzera emango zaio eskubidea duela alegazioak idatziz aurkezteko eta bere datu pertsonalak tratatuko direla. Hala ere, informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada lehenago emateak erraztu dezakeela frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea.

Eragindako subjektuei ez zaie inola ere jakinaraziko informatzailearen nortasuna, eta ez zaio komunikaziorako sarbiderik emango. Instrukzioan zehar, ikertuari komunikazioaren berri emango zaio, gertakariak labur azalduta. Informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada aurretik informazio hori emateak erraztu dezakeela frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea.

3. Alegazioak idatziz egiteko eskubideari kalterik egin gabe, instrukzioan, ahal den guztietan, elkarrikeria bat egingo zaio eragindako pertsonari. Bertan, betiere errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuz, gonbit egingo zaio gertakarien bere bertsioa azaltzeko eta egokitzeak jotzen dituen frogabideak aurkezteko.

Eragindako pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, pertsona hori espedientera sartu ahal izango da, informatzailea identifikatzeko moduko informaziorik jaso gabe, edozein unetan entzun ahal izango zaio, eta ohartaraziko zaio aukera duela abokatuaren laguntzarekin agertzeko.

4. Informazioaren Barne Sistemaren arduradunarekin lan egiten duten eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten funtzionarioek isilpean gorde beharko dituzte jardura hori dela-eta ezagutzen dituzten informazioak.
5. Azkuna Zentroko langile guztiek Informazioaren Barne Sistemaren arduradunarekin lankidetzan jardun beharko dute, eta erantzun beharko diete izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo edozein informazio aurkezteko egiten zaizkien errekerimenduei, baita eskatzen zaizkien datu pertsonalak eman ere.

10.- Jarduerak amaitzea

1. Jarduera guztiak amaituta, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak txosten bat egingo du, gutxienez honako hauek jasota:

- a) Kontatutako gertakarien azalpena, komunikazioaren identifikazio-kodearekin eta erregistro-dataekin batera.
 - b) Komunikazioa sailkatzea, izapidetzeko lehentasuna duen ala ez jakiteko.
 - c) Gertakariak egiazkoak diren egiaztatzeako egindako jarduerak.
 - d) Instrukzioan lortutako ondorioak, eta eginbideen eta horien oinarri diren zantzen balorazioa.
2. Txostena egin ondoren, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak honako erabaki hauetakoren bat hartuko du:
- a) Espedientea artxibatzea, eta informatzaileari eta, hala badagokio, eragindako pertsonari hori jakinaraztea. Kasu horietan, informatzaileak eskubidea izango du lege honetan aurreikusitako babesa jasotzeko, salbu eta, instrukzio-fasean egindako jarduerak ikusita, ondorioztatzen bada informazioa ez zela onartu behar, aurretik aurreikusitako arrazoiren bat dagoelako.
 - b) Fiskaltzari igortzea, hasiera batean gertakariak delitutzat jotzeko zantzurik ikusi ez arren, instrukzioan zehar hala den ikusteko. Delituak Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badie, Europako Fiskaltzara bidaliko da.
 - c) Egindako jarduera guztiak helaraztea izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintaritzari.
 - d) Zehapen-prozedura hasteko erabakia hartzea.
3. Jarduerak amaitzeko eta informatzaileari erantzuteko epea, hala badagokio, ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, informazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita. Erabakia edozein dela ere, informatzaileari jakinaraziko zaio, salbu eta horri uko egin badio edo komunikazioa anonimoa bada.
4. Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak jarduera hauetan hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, ez administrazio-bidean, ez administrazioarekiko auzibidean. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko kontatutako gertakarien ondorioz abiaraz daitekeen zehapen-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzea.

I



een eskubideak eta betebeharrak

o eskubide hauek izango dituzte:



- a) komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen erabakitzea; bigarren kasuan, informatzailearen nortasun-erreserba bermatuko da, hirugarren pertsonari ez jakinarazteko.
- b) Komunikazioa ahoz edo idatziz egitea.
- c) Helbide, posta elektronikoa edo leku seguru bat adieraztea Informazioaren Barne Sistemaren arduradunak ikerketari buruz egiten dituen komunikazioak jasotzeko.
- d) Hala badagokio, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeko uko egitea.
- e) Informazioaren Barne Sistemaren arduradunaren aurrean agertzea, bere ekimenez edo hark hala eskatzen dionean, eta, hala badagokio, abokatuaren laguntza izatea.
- f) Informazioaren Barne Sistemaren arduradunari eskatzea haren aurreko agerpena bideokonferentzia bidez edo informatzailearen nortasuna eta komunikazioaren segurtasuna eta fideltasuna bermatuko duten beste bitarteko telematikoa seguru batzuen bidez egingo dela.
- g) Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideez baliatzea.
- h) Salaketaren izapideen egoera eta ikerketaren emaitzak ezagutzea. Betebeharrak honako

hauek izango dira:

- a) Informazioaren barne-kanala erabiltzen duten pertsonen arrazoizko zantzuak edo zantzu aski izan behar dituzte jakinarazten duten informazioaren ziurtasunari buruz, eta ezin izango da komunikazio orokorrik egin, fede txarrez edo eskubide-abusuz.
- b) Informatzaileak behartuta daude jakinarazten dituzten gertakariak edo jokabideak ahalik eta zehatzen deskribatzera, eta deskribatutako egoerari buruzko dokumentazio guztia edo frogak lortzeko zantzu objektiboak eman behar dituzte.
- c) Informatzailea arduratuko da haren komunikazioa identifikatzen duen kode alfanumerikoa zaintzeaz eta erabiltzeaz, segurtasun-neurri egokiak hartuta, Informazioaren Barne Sistemaren arduradunarekin harremana izateko eta informazio garrantzitsua gehitzeko.

12.- Jakinarazitako jokabidea egozten zaion pertsonaren eskubideak eta betebeharrak.

Ordenamendu juridikoaren aurkako jokabidea egozten zaien pertsonak honako eskubide eta betebeharrak dituzte:

Salatutako pertsonak eskubide hauek dituzte:

- a) Gertakariak egiaztatzeko zereginetan eta, oro har, komunikazioko barne-kanalaren kudeaketa osoan ahalik eta erreserba handiena izateko eskubidea.
- b) Aurkeztutako komunikazioaren berri berehala jasotzeko eskubidea, salbu eta, ondo arrazoituta eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera, sekretua gorde behar denean, gertakariak egiaztatzearen mesedetan.
- c) Inork gomendiorik ez egitea eta ondorioz ez ematea, baldin eta, zuzenean edo zeharka, erreferentzia izendunak jasotzen baditu, jakinarazitako gertakariak ezagutzeko eta haien iritzia jasota uzteko benetako aukerarik izan ez duen bitartean.
- d) Inori ez jakinaraztea eta datuak ez lagatzea, gertakariak egiaztatzean jakinarazitako jokabidea egiazkoa edo segurua dela agerian uzten ez den bitartean. Agintari judizial edo diziplinazko agintari eskudunari datuak jakinarazteko, ez da beharrezkoa izango aldez aurretik arduradunari jakinaraztea.

13.- Datu pertsonalen tratamendua

Komunikaziorako barne-kanal hori aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua honako arau hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua; Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa; eta Arau-hauste normatiboei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen VI. tituluko aurreikuspenak.

14.- Informazioaren barne-kanalari buruzko informazioa

Azkuna Zentroaren webgunean, hasierako orrian eta erraz identifikatzeko moduko atal bereizi batean, informazio egokia argitaratuko da, argi eta eskuragarri, ezarritako informazioaren barne-kanal guztien erabilerari buruz, bai eta kudeatzeko prozeduraren funtsezko printzipioei buruz ere.

15.- Babes-baldintzak

1. Arau-hausteen berri ematen duten pertsonak babeserako eskubidea izango dute, baldin eta honako egoera hauek tartean badira:
 - a) arrazoizko zioak badaude pentsatzeko aipatutako informazioa egiazkoa dela komunikazioaren edo jakinarazpenaren unean, nahiz eta froga erabakigarriak ez aurkeztu, eta aipatutako informazioa araudi honen aplikazio-eremuaren barruan sartzen bada,
 - b) komunikazioa edo jakinarazpena ezarritako eskakizunen arabera egin bada.
2. Aurreikusitako babesetik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek jakinarazten edo agerian uzten dituzten pertsonak:
 - a) Informazioaren barne-kanalen batek edo aurreikusitako arrazoiren batek onartu gabeko komunikazioetan jasotako informazioak.
 - b) Pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei lotutako informazioak, edo informatzaileari eta komunikazioan edo jakinarazpenean agertzen diren pertsonen bakarrik eragiten dietenak.
 - c) Jendearentzat erabat eskuragarri dauden edo zurrumurru hutsak diren informazioak.
 - d) Araudi honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren ekintzei edo ez-egitei buruzko informazioak.
3. Ekintzei edo ez-egitei buruzko informazioa modu anonimoan jakinarazi duten baina, gero, identifikatu diren eta eranskin honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonak eskubidea izango dute deskribatutako babesa jasotzeko.

16.- Errepresaliak debekatzea

1. Berariaz debekatzen dira errepresalia diren egintzak, errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-saioak barne, araudi honetan aurreikusitakoaren arabera komunikazioa aurkeztu duten pertsonen aurkakoak.
2. Errepresaliatzat hartzen da legeak debekatzen duen edozein ekintza edo ez-egite, eta, zuzenean edo zeharka, halakoak jasaten dituzten pertsonak laneko edo lanbideko testuinguruan beste pertsona batekiko desabantaila partikularrean jartzen dituen tratu kaltegarria dakarrena, soilik informatzaile izateagatik edo jakinarazpen publiko bat egiteagatik.